



Nazioarteko Harremanetako amaierako profila

Nazioarteko Harremanetako Graduaren helburua da nazioarteko harremanen sistemaren konplexutasuna, jatorria, bilakaera eta egungo egoera, eragileak, bertan sortzen diren harremanak eta gatazkak eta hori interpretatzen duten planteamendu teorikoak aztertzekeo eta ulertzeko gai izango diren tituludunak prestatzea. Ikasketa-plana osatzen duten gaien bidez, ikasle tituludunak nazioarteko aktualitateari helduko dio ikuspegi politiko, ekonomiko, sozial eta juridikotik, bai eta nazioarteko erakundeen funtzionamenduari ere, hala nola Europar Batasunarenari edo NBErenari.

Tituludunak nazioarteko harremanetako diziplinaren berezko kontzeptu, metodologia eta trebetasunetako tresnak bereganatuko ditu. Tresna horiei esker, graduondoko mailan trebatzen jarraituko du diziplina horretako berriazko eremuetan, eta profesional moduan moldatuko da nazioarteko erakundeen hainbat esparrutan, bai eta konplexutasun politiko, linguistiko eta kultural handiko nazioarteko testuinguruetan garatzen duen edozein enpresa edo erakundetako lanean ere.

Halaber, tituludunak oinarrizko eskubideak errespetatzeko eta sustatzeko jarrera etikoa garatuko du, baita berdintasuna, elkartasuna, lankidetzeta eta bakearen balioak ere, horiek baitira nazioarteko harremanen eragileak.

Tituluduna hainbat zeregin egiteko gaituta egongo da:

- **Sektore publikoan:** Estatu kanpo-zerbitzua maila guztietan (misio diplomatikoak eta kontsularrak, Estatu, autonomia erkidegoko eta tokiko administrazioen kanpo proiektzio organoak, kanpoko kultura-kudeatzaileak, etab.); eskualdeetako gobernu arteko erakundeak (Europar Batasuna, Europako Kontseilua, NATO, etab.); munduko gobernu arteko erakundeak (NBE, MB, NDF, MMA, etab.); Estatu informazio eta inteligentzia zerbitzuak.
- **Sektore pribatuan:** nazioarteko negozioen arloa (enpresak, merkataritza ganberak); gizarte erakundeak, etab.; gobernu kanpoko erakundeak: nazioarteko lankidetzeta eta aholkularitza (nazioarteko GKEak, nazioarteko lankidetzeta eragileak, nazioarteko politikako/ekonomiako aholkularitzak eta kontsultoretzak etab.); nazioarteko informazioa eta komunikazioa (prentsa, komunikazio sailak gobernu kanpoko erakundeetan eta enpresa transnasionaletan); irakaskuntza eta ikerketa.

Ikasle guztiek ingeleseko C1 eskakizuna egiaztatu beharko dute, bai graduan, bai gradu bikoitzean, eta B1 eskakizuna bigarren hizkuntza batean.

Zuzenbideko tituludunaren profila

Aurkezten den titulua orokorra, balioaniztuna, zientifikoa eta ez-espezializatua da, nazioartekotzera irekia eta oinarri sendoa lortzen duena geroko lanbide eta/edo zientzia heziketa aurreratuagorako. Graduak prestakuntza eredu orokor eta balioaniztuna du, edozein espezializazio baino lehen, prestakuntza juridikoak ordenamendu juridikoaren ikuspegi orokorra behar duelako, alderdi guztiek integrazio maila handia baitute. Erabaki hori Zuzenbideko Graduaren lanbide-profilak berresten du, oso zabala baita, gradutik aurrera funtzio ugari gara daitezkeelako. Funtzio horiek, Zuzenbideko Gradu Tituluaren Liburu Zuriak azaltzen duen bezala, honako lanbide hauek dira: abokatu, prokuradorea, notarioa, erregistratzailea, Justizia Administrazio funtzionarioa, Administrazio Publikoko funtzionarioa, nazioarteko erakundeetako funtzionarioa, enpresa pribatu eta publikoak ez diren elkarteetako lege-aholkularia. Gainera, kontuan izan behar da lanbide horietako gehienetan sartzeko Zuzenbideko Gradutik gorako ikasketak egin behar direla. Horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira: abokatu eta prokuradorea. Urriaren 30eko 34/2006 Legeak, lanbide publikoetan sartzeari buruzkoak hau ezartzen du:

Auzitegi-tako abokatu eta prokuradore lanbideetan aritzeko, beharrezkoa izango da Zuzenbideko lizentziatu titulua edo haren ordezkoko gradu-titulua izatea, bai eta lanbidean aritzeko gaitasuna egiaztatzea ere, dagokion prestakuntza espezializatua eta ebaluazioa gaindituta.

Epaitza. Epaila edo abokatu fiskalaren kategorian sartzeko hautaketa prozesua oposizio libre bat da eta ikastaro teoriko-praktiko bat gainditu behar da. Ikastaro hori Eskola Judizialean edo Ikasketen Juridikoen Zentroan egin behar da, hautagaiak egin duen hautuaren arabera. Oposizio-fasearen amaieran hautagaiak lortu duen ordena-zenbakiaren arabera lortzen du postua. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak xedatzen duenez, Eskola Judizialean sartzeko oposizioan parte hartzeko, beharrezkoa da espainiarra izatea, adin nagusikoa eta Zuzenbideko lizentziaduna (etorkizunean graduduna) izatea, bai eta ezarritako ezintasun arrazoiren bat ez izatea ere (302. artikulua).

Notarioria. 1944ko ekainaren 2ko Dekretuak ezartzen du Notariorian sartzeko oposizioa egin behar dela (5. artikulua).

Izangaiei eskatzen zaizkien betekizunen artean, espresuki eskatzen da Zuzenbidean doktorea edo lizentziaduna izatea – etorkizunean graduduna – (6. artikulua). Jakina denez, eskakizun berberak ezartzen dira jabetza-erregistratzaileen kidegoetan edo Espainiako administrazioetako eta nazioarteko erakundeetako funtzionarioen kidegoetan sartzeko.

Testuinguru horretan, Graduaren helburua ez da ikaslea lanbide jakin baterako prestatzea, baizik eta geroko lanbide heziketa eta/edo heziketa zientifiko aurreratuago baterako oinarri sendoa ematea. Gaur egun, globalizazioa deitu zaion fenomenoak eta Europako herrialde asko Batasunean sartuta egoteak agerian uzten du beharrezkoa dela graduaren prestakuntza eskaintzak nazio-mugetatik haratago doan proiektzioa izatea.

Laburbilduz, nazioartekotzera irekita egon behar duela esan genezake. Horregatik, Gradua diseinatuta dago, ikasleek nazioarteko mugikortasun programetarako sarbidea izan dezaten, Nazioarteko Zuzenbidean berariazko prestakuntzako ibilbidea egin dezaten eta kredituen heren bat baino gehiago ingelesez egin dezaten.

Azkenik, Gradua ikaskuntza autonomo eta esanguratsu bikaina lehenetsi nahi du, ikasleei konfiantza handia emango diena beren ezagutzetan eta gatazkak konpontzeko gaitasun intelektualetan, etorkizunean garatuko duten lanbide juridikoa edozein izanda ere. Horrela, egoera berrira egokitzeko, antolatzeko eta planifikatzeko beharra ikusten da, eta horrek berekin dakar errealitateari sormenez eta berrikuntzarako gaitasunez, pentsamendu kritikoz eta heldutasun pertsonalez, lidergoz eta lorpenera bideratuz aurre egiteko gai izaten jakitea.

Zuzenbideko Graduaren helburua prestakuntza juridiko sendoa eta jarrera etikoak eta erantzukizun sozialekoak uztartzen dituzten pertsonak, herritarrak eta profesionalak prestatzea da.

Oro har, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbideko gradudunek gaitasuna izango dute arau eta testu juridikoen zentzua eta irismena zehazteko; akordioak, hitzarmenak, kontratuak eta beste testu juridiko batzuk idazteko, haien edukia tartean dauden interesetara egokituz; egon litezkeen gatazkak prebenitzeko; gatazkak konpontzeko eta modu pertsonalean eta sortzailean juridikoki argudiatzeko, etikaren eskakizunekin bat datozen irtenbide berritzaile eta sinesgarriak emanez; eta gero eta nazioartekoagoa den eta informazioaren eta komunikazioaren teknikak gero eta garrantzi handiagoa duten testuinguruan moldatzeko.

Zuzenbideko Gradua prestakuntza sakona ematen die 1393/2007 Errege Dekretuaren 3.5 artikuluan aipatzen diren printzipio, balio eta eskubideetan. Horiek guztiak zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoari dagozkio, gure Konstituzioan jasota daude eta ordenamendu juridikoa inspiratzen dute eta zuzenean aztertzen dira zenbait gaitan (Konstituzio Zuzenbidea, Administrazio Zuzenbidea, Zuzenbide Zibila, Europar Batasuneko Zuzenbidea, Giza Eskubideen Nazioarteko Babesa...), etikaren arloko ikuspegi juridikoaren osagarri gisa. Titulua diseinatzerakoan, kontuan hartu dira tradizioz Zuzenbideko lizentziadunen lan-eremu nagusiak.

Hala ere, kontuan hartu behar da tradizioz handieneko lanbide juridikoetara sartzeko (abokatutza, prokura, epailetza, notariotza, Ogasuneko ikuskaritza, Estatuko abokatutza, Administrazio Publikoetako funtzionarioen beste kidego batzuk...) beharrezkoa dela, edo laster eskatuko dela, ondorengo prestakuntza espezifikoa eta bestelako lehiaketa, oposizio edo proba arautuak gainditzea. Horregatik, Fakultateak Zuzenbideko Gradu orokorra, balioaniztuna, zientifikoa eta ez-espezializatua eskaintzen du, nazioartekotzera irekia eta oinarri sendoa sortzen duena geroko lanbide eta/edo jarduera zientifiko aurreratuagorako.

Proposatutako prestakuntzak Zuzenbideko Gradurako funtsezkotzat jotzen diren eta ondoren espezializazio-eremu batean sakontzeko eta/edo bigarren eta hirugarren zikloko ikasketekin jarraitzeko beharrezkoak diren gaitasunak azpimarratzen ditu. Hala ere, graduko ikasketek ibilbideak ere eskaintzen dituzte, ikasleek esparru juridiko jakin bat hurbilagotik ezagutzeko aukera izan dezaten. Graduak, halaber, hizkuntza gaitasuna eta trebetasuna ziurtatzeko aukera ematen du, bai naziko lanbide-eremuan, bai tokiko eta nazioarteko lanbide-eremuan.